

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maite Etchamendy

*Ezterenzubi,
Nafarroa
Beherea (1942)*

Aurkibidea



Biografia



Ezkonduz geroztik, Marie Therese Curutchage. Mendiburia etxaldean sortua, zazpi haurridetan gazteena zen. Aita bertakoa zuten (aitatxi Kalifornian izana zen, artzain) eta ama ere Ezterenzubikoa (baina sortu zenean bere etxaldea Lekunberri zen). Maitek hamar urte zituenean, ama galdu zuten. 14 urtera arte ibili zen eskolan eta gero pare bat urtean sukaldean eta josten ikasten, beste eskola batean. Bi anai eta bi osaba Ameriketara ziren, eta 1960an Maite eta bere ahizpa ere bertara joan ziren, Fenixera (Arizona). Haurzain aritu ziren bi urtean, bakoitza familia batean, eta gero Bakersfieldera joan ziren, Wool Growers jatetxera lanera. Maite haurzain ere ibili zen, jatetxeko lanarekin batera. Jean Baptiste Curutchage ezagutu zuen (Wyomingera artzain joana eta handik Chinora; Bakersfieldeko Pirenees euskal ostatuan ari zen kantinero). Ezkondu, eta bi seme-alaba izan zituzten. 1971n Chalet Basque jatetxea ireki zuten, Bakersfielden. Bakersfieldeko euskal klubeko kide aktiboak izan dira: euskal kantak erakusten ditu, koruan aritzen da, apaizari laguntzen dio... palan jokatzeko ere erakusten ziren neska txikiei. Elisabeth alaba eta Mattin anaia ere elkarrizketatu genituen.

Zintak

EZB-006

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-10-12

- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Etchamendy, Maite | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com